

bilbao **museoa**

BBKateak **Regoyos –** **Tamayo**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Regoyos – Tamayo

13. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

Paisaia

“Leku jakin batetik beha daitekeen lurralde baten zatia”. Regoyosek eta Tamayok hitzez hitz jarraitzen diote pinturan “paisaia” terminoaren definizio horri. Baina Regoyosek bilatzen dituen argiaren, mendien, landarediaren eta paisaiako jendearen ñabardurak geometrizatu egiten dira Tamayoren objektuen mundu nahasian, zeina irudimentsuagoa, trinkoagoa eta anitzagoa den.

1

Eraikin zaharra Lehen solairua



Darío de Regoyos

1857-1913

Asturiasko Ribadesellan jaio zen, baina harreman artistiko nahiz familiar estua izan zuen Euskal Herriarekin. Carlos de Haesen ikaslea izan zen Madrilgo San Fernando Akademian, eta Bruselan amaitu zituen ikasketak; han, L'Essor zirkuluan txertatu zen. Holandara eta Frantziara askotan bidaiatu zuen, bai eta parte hartu ere Arte Ederren Erakusketa Nazionaletan, Parisko Aretoetan eta Veneziako Bienaletan. 98ko Belaunaldiko intelektualekin izandako harremanak eragin erabakigarria izan zuen artistaren planteamendu estetikoetan. Joerak aintzat hartu gabe, funtsezko figura izan zen bai Espainian inpresionismoa sar zedin eta bai euskal pintura moderniza zezaten.




Bainua Erreterian

1900. Olioa mihisean

1900eko uztailean Gipuzkoako herrira egindako txango batean margotu zuen Regoyosek margolan hau, haurtzaroko bizipozaren eta bat-batekotasun xaloaren erakusle hunkigarria dena. Lehen planotik margotu zuen, zuhaitz baten itzalpean beharbada, udako egun bero batean. Haurren gorputzak argitzen dituen argi urrekarak eta proiektatzen dituzten itzal luzeek ilunabar eguzkitsua agertzen digute. Puntillismo impresionista maisutasunez erabiltzeko aukera aproposa izan zen une hura, hala, plano berean argi-efektuak eta kolore-aldaketak atzemateko.

Billboko Udalaren ekarpena 1913an



Urumea

1904. Olioa mihisean

Regoyos Donostian bizi zen margolan hau margotu zuenean, eta kostaldeko hirian ohikoa ez zen gertaera bat baliatu zuen: elurra. Desafio zaila izan zen lan hau artistarentzat, konplexutasun kromatikoagatik, baina neguko egun bateko argi zilarreztatua maisuki jasotzen jakin zuen, ukitu horien eta berdexken kontrapuntuz, kolore hotzeko sorta erabilia. Ikuspegia leku altutik margotu zuen, enkoadratze fotografikoz, eta espazioa banda horizontaletan zatituta dago konposizioan, Urumea ibaiaren gaineko zubia diagonalean dela.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena 1913an



Aureskua euripean Arrasaten

1905. Olioa oholean

Regoyosek Gipuzkoako herri bateko jai-eszena bat margotu zuen hemen, zeinetan dantzari bat ospakizun garrantzitsuetan ohiko erreberentzia-dantza solemnea interpretatzen ari den. Benetan azpimarratzekoa da artistak nolako originaltasunez irudikatu zituen euri-egun bateko argi-baldintzak. Argi morez blai ageri da eszena, urdinaren, malbaren eta tonu arrosen mailaketa hedatuz, eta horrek giro irrealera eragiten du, ipuinetako airearen antzekoa. Efektu horrek, irudien tratamendu naifarekin batera, egileak arte ofizialetik aldentzeko zeukan borondatea erakusten du.

Antonio Plasencia jaunaren dohaintza 1935an



Elorrio

1907. Olioa oholean

Zeruko eta mendietako malba koloreek, zuhaitz-multzoak irudikatzen edo etxeak marrazteko mendi-mazelak ere zipriztinduz, atzealde berdeekin batera argi-bibrazio guztiz inpresionista eragin dute. Beste hainbeste gauzatu da eraikinen itzalekin, kolore-tonu urdinakaz eta moreakaz, kolore arrosaz argitutako planoekin kontrajarrita. Elizako eta lehen planoko hori koloreek osatzen dute zirkulu kromatikoa Bizkaiko Elorrio hiribilduaren uneko margolan honetan. Aldi hartan, Regoyosek ondoko Durango herriko hainbat ikuspegi ere margotu zituen.

1943an eskuratua



Santa Luzia. Durango

1907. Olioa mihisean

1907ko udaberria eta uda Bizkaiko Durangon igaro zituen Regoyosek, sarritan erasaten zion bronkitisa tratatzeko itsasotik urrun egon zedin medikuak emandako aholkuari jarraituz. Egonaldi horren emaitza dira herriko hainbat paisaia, besteak beste, Santa Luzia haitzaren ikuspegi hau. Zeruaren eta mendiaren tonu morexkak, berde-sorta zabal baten bitartez irudikatuta dagoen lehen planoko baratzeekin lotuta, konposizioaren sakontasuna bideratzen du. Laboreak, artaldeak eta irudi txikiak islatzeko erabilitako pintzelkada puntillista inpresionismo petoenaren adibide bikaina da.

1924an eskuratua



Daxeko ikastetxea

1909. Olioa mihisean


Regoyos Frantziako Akizera joan zen familiarekin, jasaten zuen arnasgaitzetik ihesi, eta, egonaldian, hainbat azoka-eszena margotu zituen. Honetan, haur talde bat ageri da –egilearen seme-alabak beharbada– plazan jolasean. Kolore paletan, itzaletarako bioletak eta malbak erabili zituen, eta argietarako okreak, eraikuntzetako perspektibarako alde-multzoko efektua eratuz. 1892tik 1895era bitartean garatutako puntillismoa ordurako utzia bazuen ere, baliabide horren aztarna suma daiteke ondorengo obra osoan. Hemen, zuhaitzen hostoetan eta zuhaixketan nabari dira.

1951n eskuratua

Daniel Tamayo

1951

Bartzelonako Massana Eskolan hasi zuen prestakuntza, eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko lehen promozioako kidea izan zen, non irakasle lanetan luzaz aritu izan den. Errealitatearen geometrizazioa abiapuntutzat hartuta, unibertso plastikoa garatu izan du hasi zenetik, pop mugimenduak erakarrita. Kolore lau oso bizien bidez, izaera eskultorikoko irudi organikoekin osatutako paisaiak eratzen ditu. Bizitaketik eratorri zaizkion eszenatokiak eta narrazioak fantasia oparo bihurtzen dira, zalantzarik gabe ezagutzen den figurazio-kode aski pertsonal baten bidez eratuta.



Durungaldea

1981. Olioa mihisean

Hiru panel independente hauekin, egileak izenburuko eskualde bizkaitarreko ikuspegi desberdinak dauzkan panoramika bat osatu zuen. Autonomia fisikoa azpimarratzen dute bai banakako markoek eta bai paisaiari jarraipena eman beharko lioketen elementu batzuetan egindako aldaketa txikiek, hala nola, zeruak. Tamayok hainbat figurarekin eta eraikitze-formarekin dentsitate handiz metatutako agertokiak eratu zituen, eta horietan ekintza ugari gertatzen dira aldi berean. Unibertso paralelo hau deszifratzera gonbidatu nahi gaituela ematen du, non, bere fantasiaz, inguru geografiko eta sozial hurbila irudikatu zuen. Formatu handiak izaera epikoa ematen dio multzoari.



Durangaldea

2017. Impresión digital sobre papel

Durangaldeko beste paisaian ez bezala, formatu panoramikoko triptiko honek jarraipena du konposizioan. Tamayok erabiltzen duen teknika bereziki aproposa da tinta lauetan tratatutako olioaz baliatuta mihiseetan lortzen duen efektu plastikoa grabatura eramateko. Gainera, aukera ematen du lerro fin eta zehatza egiteko, espazio nabar horretan bizi diren forma anitzen –gorputzak, eraikinak, izaki fantastikoak– inguruak marrazteko.

Bilduma partikularra

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.